

**2007ko MAIATZAREN 24an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2007ko maiatzaren 24an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Jon Urkaregi Garmendia alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Jon Urkaregi Garmendia

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Jon Tejeria Otermin
Iñigo Aginalde Lertxundi

Bere ezin etorria adierazi du:

Karlos Irazu Muñoa

IDAZKARIA: M^a Eugenia Muñoa Irureta

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarreko aktak onestu, hala badagokio:
 - 2007ko maiatzaren 3an ospatutako ohiko udalbatzarra.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. J. M. U. A. jaunak aurkeztutako hirigintz kontsulta aztertzea.
4. P. C. S. andereak aurkezturiko eskaera aztertzea.
5. Larraulgo AA.SS-etako 1.1. exekuzio unitateko etxebizitzetzi lehen erabilera baimena ematea, hala badagokio.
6. Jailetako postu eskaera.
7. 28 kanala, Tolosaldea Telebistarekin, lankidetzaren antolatze eta finantzatzeko 2007rako hitzarmena onartzea, hala badagokio.
8. Eskualdeko jarduera ekonomikoetarako, urbanizatzeko eta sustapen publikoko lurzoruak eskuratzeko tolosaldeko udal administrazioen arteko hitzarmena onartzea, hala badagokio.
9. Agenda 21-an inguruan Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak argitaratutako dirulaguntzen berri ematea.
10. Fakturak eta ordainketak.
11. Beste batzuk.

12. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

Bilkura 20.45 orduak direnean hasi da.

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADAGAKIO.

- ▣ 2007 urteko maiatzaren 3ko Udalbatzarraren Ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren beratartuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

15/07 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 14koa, Dumper 9000 baten zerbitzua emateko Alkihaizea, S.A. baltzua kontratatzea erabakitzen duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

J. M. U. A. JAUNAK AURKEZTUTAKO HIRIGINTZ KONTSULTA AZTERTZEA.

Ikusirik 2007ko maiatzaren 3an J. M. U. A. jaunak aurkezturiko idatzia non Larraulgo E. etxean hosteleritza negozio bat ipintzeko aplikagarria den araudiari buruz kontsulta bat egiten duen.

Ikusirik Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andreak maiatzaren 23an luzaturiko txostena, erabaki honen erainskin moduan jasotzen dena, eta udalaren baimena emateko, bertan adierazitako araudia betetzen duen teknikari batek sinatutako egiteko eta jarduera proiektua aurkeztu beharko direla nabarmentzen den.

Bertaratuek gaia aztertu ondoren, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Udaleko Aholkulari Teknikaria de arkitektu andreak luzaturiko txostena onartzea eta erabaki honekin batera J. M. U. J. jakinaraztea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzeak.

LAUGARREN PUNTUA

P. C. S. ANDEREAK AURKEZTURIKO ESKAERA AZTERTZEA.

Ikusirik 2007ko maiatzaren 17an P. C. S. andreak aurkeztutako idatzia, non U. XX-an lorategiko sarea 50 zm altxatzeko eta paretan biltzen den toldo bat jartzeko baimena eskatzen duen.

Ikusirik Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andreak luzaturiko txostena non ondorengoa adierazten duen:

“...Beraz, planteatzen den itxiturak 1,50 zm-ko altuera izango duela ikusirik eta Urbeltz plazaren apaingarri publiko orokorra mantentzeko, gainontzeko bizilagunek etorkizunean itxitura aldatzeko edo toldoa jartzeko asmoa aurkezten badute, egindakoaren berdina jartzeko konpromezua hartzen duten idatzia aurkeztu beharko da.

Itxitura eta toldoaren aurrekontua ekarriko da udaletxera”

Bertaratuek, gaia aztertu ondoren, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- P. C. S. andreak egin duen eskaera onartzea baldin eta ondorengo baldintzak batetzen badira:

- Itxitura eta toldoaren aurrekontua aurkeztu beharko ditu
- Gionontzeko bizilagunek etorkizunean itxitura aldatzeko eta toldoa jartzeko asmoa aurkezten badute, egindakoaren berdina jartzeko konpromezua hartzen duten idatzia.

BIGARRENA.- Interesatuari akordio honen berri ematea.

HIRUGARRENA.- Indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea, kitapen hau aurrekontua ekarri ondoren egingo delarik.

BOSGARREN PUNTOA

LARRAULGO AA.SS-ETAKO 1.1. EXEKUZIO UNITATEKO ETXEBIZITZEI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L baltzuak 2007ko maiatzaren 14an aurkeztutako idatzia, non Larraulgo AA.SS-etako 1.1 exekuzio unitateko etxebizitzei lehen erabilera baimena emateko eskatzen duen.

Ikusirik eskaerarekin batera ondorengo dokumentazioa aurkeztu duela:

- Obra amaierako ziurtagiria.
- Obra berriaren eskritura.
- Gas eta elektrizitate buletinak.
- Telekomunikazio ziurtagiria.
- Etxebizitzen argazkiak.

Ikusirik 2007ko maiatzaren 23an Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. Arkitektuak luzaturiko txostena non onodorengo adierzten duen

“... maiatzaren 22an J. L. aparejadorearekin ikuskartiza bisita teknikoa egin ondoren, egindako obra, lizentzia eskatzerakoan aurkeztu zen “exekuzio proiektuari” egokitzen zaiola adierazten dut, eta lehen okupazio baimena lortzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu direnez, egokia izango da aipatutako baimena ematea.

Dena dela, teilapeak espazio bizigarri bezala erabili ahak izateko Larraulgo 34. artikulua bete beharko du.”

Gaia azterturik, bertaratuek, I. A. L. zinegotziaren abstentzioz 30/1992 legeak 28. artikuluan aurreikusitako kasu batean aurkitzen delako

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Larraulgo AA.SS-etako 1.1 exekuzio unitateko 5 etxebizitzei lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

SEIGARREN PUNTOA
JAIETAKO POSTU ESKAERA.

Ikusirik 2007 urteko maiatzaren 8an A. D. A. R. jaunak Larraulgo Udaletxean aurkeztu zuen idatzia, non Larraulgo jaietan lurzoru publikoa okupatuz ondorengo postua ipintzeko baimena eskatzen duen.

“Tiro Pichon” etxola .- 2 x 6 m.

Gaia azterturik Udalbatzarrak aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- A. D. A. R. jaunari 2005 urteko Larraulgo San Esteban jaietan, 2007 urteko abuztuaren 2tik 2007 urteko abuztuaren 5a bitartean, biak barne, , lurzoru publikoa okupatuz, eskatu duen postua ipintzeko baimena ematea.

BIGARRENA.- Interesdunari jaikineraztea Larraulgo jaiak izan aurreko astean Larraulgo Udaletxearekin harremanetan jarri beharko dela postuen kokapena zein izango den zehaztu diezaioten.

ZAZPIGARREN PUNTOA

28 KANALA, TOLOSALDEA TELEBISTAREKIN, LANKIDETZA ANTOLATU ETA FINANTZATZEKO 2007RAKO HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik 2007ko maiatzaren 8an, 28 Kanalak Tolosaldeko Telebistak bidalitako 2007rako hitzarmena, non 2007ko urtarrilaren 1etik 2010 urteko abenduaren 31ra bitartean luzatuko den hitzarmen honen ondorioz 28 kanalak, epe horretan emango duen eskualderako komunikazio zerbitzua finantzatu ahal izateko Larraulgo udalak biztanleko eta urteko 2 euroko ekarpena egin beharko lukeen.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- 28 kanala Tolosaldeko Telebista eta Larraulgo Udalaren arteko hitzarmena sinatzea erabaki honen eranskinean arautzen diren baldintzetan.

BIGARRENA.- Larraulgo Udaleko Alkate-Lehendakaria den Jon Urkaregi Garmendia ahalmentzea hitzarmen hau sinatzeko.

HIRUGARRENA.- 28 kanala Tolosaldeko Telebistari 270 eurotako ekarpena burutzea.

ZORTZIGARREN PUNTOA

ESKUALDEKO JARDUERA EKONOMIKOETARAKO, URBANIZATZEKO ETA SUSTAPEN PUBLIKOKO LURZORUAK ESKURATZEKO TOLOSALDEKO UDAL ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik Tolosaldea Garatzen, S.A baltzuak “Eskualde mailako jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren sustapenerako hitzarmena” bidali dutela bere helburua eskualde mailan, lurzoruaren okupazio eragingarriagoa, arrazoizkoagoa eta iraunkorragoa bultzatzea eta zehazki, urbanizazioko eta ekonomiako jardueretarako lurzoria eskuratzea, eta lur horiek bultzatzea guztientzat komuna den ikuspuntuan, jarduera industriala eta komertziala sustatzeko asmoz eta etorkizunean atxiki daitezkeen udalen eta aldierrdien eskubideak eta betebeharrak zehaztea eta funtzionamendurako arau osagarria xedatzea.

Ikusirik Udal zergen banaketari dagokion puntua ez dela oso argi gelditu, gaia mahai gainean gelditzen da puntu hau argitu arte.

BEDERATZIGARREN PUNTOA

AGENDA 21-AN INGURUAN GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ETA EUSKO JAURLARITZAK ARGITARATUTAKO DIRULAGUNTZEN BERRI EMATEA.

Idazkari andreak adierazi duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Maiatzaren 15eko 36/2007 Foru Dekretua onartu du Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei beren Tokiko Agenda 21eko ekintza planak betetzea bultzatzeko dirulaguntzak emateko.

Era berean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2007ko apirilaren 27ko Lurralde Antolamendu Sailburuaren Agindua onartu du, garapen iraunkorra sustatzeko ekintzak egiten dituzten udalei dirulaguntzak ematea arautzen duena.

Bertaratuak berri eman da gelditzen dira.

HAMARGARREN PUNTOA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK.

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

- LOURDES PEREZ PATXO	324,00 €
- JOKIN IRAOLA	19.894,00 €

- VODAFONE	87,81 €
- JOXEAN ALTUAN	94,16 €
- TELEFONICA	0,70 €
- TELEFONICA	29,20 €
- TELEFONICA	18,62 €
- TELEFONICA	16,15 €
- TELEFONICA	89,78 €
- ENCUADERNACION CASTRO	30,16 €
- KIROLZER	118,95 €
- MANPEL	84,10 €
- PASKIN	174,00 €
- ETOR OSTOA, S.L.	120,00 €
- UROLA TUBOS Y ACCESORIOS, S.L.	237,34 €
- EUSKALTEL	47,44 €
- JOKIN IRAOLA, 44	213,44 €
- MRW	15,06 €
- ULAHI	470,96 €
- UROLA	435,32 €
- UROLA	-2,88 €
- ELECTRICIDAD ZIZURKIL	220,98 €
- GSM	1.138,03 €
- KIROLZER	136,25 €
- FERRETERIA BARBE, S.L.	44,17 €
- IBERDROLA	128,88 €
- IZFE, S.A.	371,20 €
- ALBISU KRISTALDEGIA, S.L.	29,00 €
- ARGITU	192,68 €
- PAPERTXULO, S.L.	12,20 €
- SETALDE	4,42 €
- HERRI LANTEGIA, S.L.	106,38 €

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera 24.882,50 **Euro**tako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMAIKAGARREN PUNTOA
BESTE BATZUK.

Udal Batzarrak presazko eta premiazko arrazoiak direla medio aho batez gai zerrendatik at dauden hurrengo gaiak eztabaidatzea erabakitzen du.

- **Herri Ostatuaren Zerbitzu Publikoaren kudeaketa kontratatzeko lehiaketa arautuko duten baldintza ekonomiko administratiboen plegua onestea.**

Ikusirik Larraulgo Herri Ostata hutsik dagoela eta herriarentzat komenigarria dela horrelako zerbitzu bat eskaintzea.

Ikusirik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaleak luzaturiko txostena eta Udalbatzarrak emandako irizpideen arabera prestatutako Ostatu taberna-jatetxearen zerbitzu publikoa zeharka kudeatzeko kontratua arautuko duen baldintza ekonomiko administratiboen plegua, non lehiaketa bidezko adjudikazio sistema planteatzen den, deialdi irekia, prozedura arrunta eta adjudikazio irizpideak ondorengoak izanik:

- Administrazioaren alde eskaintako kanon handiagoa.
- Kudeatutako zerbitzuen kalitate hobea eta Udalerrriarentzako onura orokorra. Azken faktore hau hautagiek sektorean duten esperientziaren arabera baloratuko delarik.

Ezartzen den kanona hileko 200 eurotako da, gehi dagokion BEZa, lehiakideek gorantz hobetu dezaketelarik.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Alkizako Udalaren jabetzakoa den Ostatu taberna jatetxea zerbitzu publikoa zeharka kudeatzeko kontratazio administratiboa adjudikatze deialdi publikoa arautuko duen baldintza ekonomiko administratiboen plegua onetsi, Udaleko Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaileak egin duen zirriborroaren edukiarekin, eta kanona gutxienezko 200 euro hileko euro gehi dagokion BEZ-ean finkatu.

BIGARRENA.- Lehiaketaren deialdiari buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta El Diario Vasco egunkarietan argitaratu, eta hamabost lanegunetako epea ireki interesdunek eskeintzak aurkeztu ditzaten.

- **Herri Ostatu lanak egiteko kontratu administratiboa esletzea, hala badagokio.**

Ikusirik herri ostatuko komunetako irisgarritasuna bermatzeko zenbait lan edo obra burutu behar direla.

Ikusirik Tomas Prieto Albañileriak 4.461,18 eurotako aurrekontua aurkeztu duela.

Ikusirik Idazkari andreak 2007ko maiatzaren 22an luzaturiko txostena non ondorengoa adierazten duen:

Kontratu honetarako gehieneko aurrekontu zenbatetsia ikusita, bidezkoa da kontratu hau obra-kontratu txikiaren moduan egitea, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean (ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretua) ezarritakoaren babesean. Izan ere, horrelako kontratuertarako gehieneko zenbatekoa, lege horren 121. artikulua dioenez, hogeita hamar mila eta berrogeita hamar euro eta hirurogeita bat zentimo da (30.050,61 €).

Gainera obra-kontratu txikian, gastua onartzea eta dagokion faktura eta obren aurrekontua sartzea besterik ez da behar espedientea tramitatzeko.

Gaia azterturik, bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Herri Ostatuako lanak egiteko kontratu administratiboa, Tomas Prieto Albañileriarri esleitzea 4.461,18 euro gehi dagokion BEZ-eko kopuruan.

- **Herri ostatuaren zerbitzu publikoaren kudeaketa esleitzeko kontratazio mahaiaren eraketa**

Ikusirik bilkura honetako aurreko puntuan Larraulgo Herriko Ostatuaren zerbitzu publikoa kudeatzeko lehiaketa prozesua arautuko duen baldintza ekonomiko administratiboen plegua onestu zuela.

Ikusirik eskeintza ekonomikoak irekitzeko Kontratazio Mahaiak bildu beharra duela.

Ikusirik Pleguetako XIV puntuak xedatzen duela Kontratazio Mahaian Lehendakaria eta Idazkariak gain bi bokal egongo direla, udaleko zinegotzi izango direnak.

Gaia azterturik, Udalbatzak aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Larraulgo Herriko Ostatuaren zerbitzu publikoaren kudeaketa esleitzeko Kontratazio Mahaieko kide moduan ondorengo bi zinegotziak izendatzea:

- Adela Mandiola Gomez
- Karlos Irazu Muñoa

HAMABIGARREN PUNTOA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkeztu.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

Jon Urkaregi

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

M^a Eugenia Muñoa Irureta